

Elkarriketa: Ander Vilariño

Pilotua

Hil honen hasieran amaitu da Munduko Serie Txapelketa. 1 formularen azpitik dagoen txapelketa honek 1 formularen alternatiba izan nahi du; aurrekontu txikiagoa izan arren, pilotuen trebezia nabarmentzen da. Talde guztiak Dallara Nissan V6 autoarekin lehiatu dira: 2.986 cc eta 425 zaldiko potentzia du.

■ **Lehen aldiz jokatu den txapelketa honek ikuskizun handia sortu du, eta oso lehiakorra dela erakutsi du.**

Halaxe da, bai; txapelketa zoragarria izan da, oso ondo antolatu dute, eta 1 formulako autoek darabilten neurri bereko autoak gidatu ditugu. Denborei begiratzeko badiugu, 1 formulako autoetatik 6-7 segundotara gaude, eta, hurrengo denboraldian egingo diren hobekuntzak kontuan izanda, 5 bat segundora egongo gara. Parte hartu duten pilotuak oso onak izan dira. Txapelketan izan garen 24 pilotuen artean, 6 berriak ginen. Urte zoragarria izan dela uste dut, eta asko ikasi dut.

■ **Sailkapen nagusia zortzigarren postuan amaitu duzu. Maiatzean, Valentziako zirkuituan jokatu zen lehenengo lasterketa baino lehen, emaitza hau lortzea espero zenuen ala gorago amaitzea espero zenuen?**

Txapelketa hasi baino lehen, 8. edo 10. postuen artean egotetik ez nuen espero, batez ere parte hartu duten pilotuen maila kontuan izanda. Izan ere, parte hartu duten pilotu gehienak 1 formularen edo 3.000 formularen lehiatu dira; baina lehenengo entrenamendu eta lasterketak egin eta gero, konfiantza eta moralak hartzen joan nintzen, eta, egia esan, lehenengo seien artean bukatuko nuela uste nuen; arazo mekaniko pilo bat izan dut, ordea, eta ezin izan dut postu hobeagorik lortzerik izan.

■ **Zer du Chesten zirkuituak horren emaitza onak lortzeko?**

Askok gustatzen zaidan zirkuitua da. Entrenamendu saioetan, hasieran laugarren eta bukaeran bigarren egin nuen. Gainera, Chesten korritu genuen bigarren aldian, parrilla buru izan nintzen, 1 formularen 5 urtez



EGUNKARIA

■ ■ ■ Ander Vilariño, aurtengo lasterketa batean.



Saria

«'Debitamte' hoberena izendatu naute eta hori pozgarria da»

■ **Zer da pilotu hauetaz gehien harritu zaituena?**

Batez ere, pista batera egokitzeko duten erraztasuna. Entrenatzera goazenean, debutanteok 20 minutu behar ditugu pista egokitu, eta al bait azkarren ibiltzeko; hauek, berriak, iristen direnetik, ezin azkarrago ibiltzen dira.

Hori esperientziak ematen dizu. Ni ere, urte amaieran, haien gidaritzeko modura gerturatu naiz, eta, datorren urtean, beraien parean egotea espero dut.

■ **Azken lasterketaren ondoren, pilotu, teknikari eta arduradunek pilotu gazte onena izendatu zintuzten. Espero al zenuen?**

55 pilotu, babesle, taldeko buruzagi eta auto egileek egindako bozketa izan zen. Debutante hoberena izendatu ninduten, eta pozgarria izan zen. Urte hasieran ez nuen espero horrelakorik, eta, datorren denboraldian, sari garrantzitsuago bat lortzeko indarra ematen dit.

■ **Non jarraituko duzu datorren denboraldian?**

Lehen batean, talde berean. Egitasmo berri bat dugu eskuartearen, eta ilusio handia dut. Datorren urtean, txapelketako lehenengo hiruren artean egotea espero dut; horrek 1 formularen frogak egiteko aukera ematen dizu; nire ametsa da hori.

■ **Hurrengo denboraldian, aurtengo 1 formularen izandako pilotuekin lehiatuko zara; nola ikusten duzu zure burua?**

Zonta, Montagny, Leinders eta Justin Wilson frogak egiten ari dira 1 formulako taldeekin, eta ez dakigu Munduko Seriean jarraituko duten. Bestetik, litekeena da Gene, Masa eta bestek txapelketa honetan parte hartzea.

«Datorren urtean txapelketako hiru lehenengoen artean egotea espero dut»

egon den Zontaren aurretik. Honek konfiantza handia eman zidan. Lasterketa hartan, bigarren bukatu nuen, baina zerbaitekin geratu behar badut, entrenamendu saioetan egindako polearekin geratuko naiz.

■ **Behin txapelketa bukatu ondoren, aurkitu duzuna espero zenuena al zen?**

Pentsatzen nuen autora egokitzea gehiago kostako zitzaidala, eta horren azkar egokitzea sorpresa handia izan zen. Ez nuen espero autoa prest edo puntuan jartzeko horrenbesteko denbora beharko genuenik. Doikuntza egokiak aurkitzea kostatu zitzaizgun, baina, denboraldi erdialdidean, beste modu batez hasi ginen lanean, eta emaitza hobeak lortzen hasi ginen.

■ **Lasterketa askotan parte hartu duzu, baina gutxitan gertatu zaizu lasterketa bat bertan behera utzi behar izatea motor arazoengatik. Zer gertatu zen Jaraman?**

Motor arazoak zirela eta, oso atzeratuta irten behar izan nuen Jaramako lasterketan. Albaceten jokatu zen hurrengo lasterketan ere arazo asko izan nintuen. Handik, Italiako Monza zirkuitura joan ginen, eta han ere ez genuen emaitza onik lortu. Frantziako lasterketaren ondoren, hausnartu, eta lana hobeto egin genuen. Eta lana ondo egiten denean, emaitzak berez etortzen dira.

■ **Magny-Courseko lasterketaren ondoren, beste Ander Vilariño bat ikusi zen, ezta?**

Bai, autoan frogak egin genituen; egonkortasunerako barra batzuk frogatu genituen, beste gauza batzuen artean. Bira azkarrena egin nuen, baina, azkenean, Zontak kendu zidan 6 milarenengatik. Bartzelonan autoa bikain ibili zen, eta aurreko postuetan egon nintzen; Valentzian ere oso emaitza onak lortu genituen, eta, Brasilen arazo batzuk izan arren, seriotasunez

lan eginez gero, datorren urtean gauza garrantzitsuak egin ditzakegu txapelketa honetan.

■ **Zure arduradunekin hitz egin behar izan zenuen emaitza hobeak lortzeko?**

Urte hasieran asko ibili ginen, baina, gero, zirkuituetara joan aurretik, ez ginen ia batera ibili, eta ni kontrakora ohituta nago: hasieran, gutxiago ibili; eta, gero, lasterketa baino bi aste lehenago, pista horretan lan egin; batetik, gidaritzara egokitzeko, eta, bestetik, doikuntza egokiak aurkitzeko. Pista aldatu egiten da; ez da gauza bera martxoan edo abuztuan ibiltzea, eguraldia, hezetasuna... aldatu egiten baita.

■ **Ziur asko, aurtengo beste gidariek zerbait ikasiko zenuen, ezta?**

Montagny, Leinders, Justin Wilson eta guztien gainetik zegoen Zonta aipatu behar. Munduko txapelketa batean esperientzia izateak asko esaten du.

Otik 100era 58 segundotan. Edo gehiago.



Edota minutu batean ere. Izan ere, norberak duena baloratzeko modurik onena soberan duenaz gozatzea baita. Passat. 274 ZP. Nola erabili, hori zure kontua da.

Passat bat lor dezakezu **19.330 €tik (3.216.241 pta.tik)*** hasita honako ezaugarriekin: gidari eta bidaidearentzako aurreko eta alboetako airbag-ak, buruko airbag-a, egonkortasuneko programa elektronikoa (ESB), ABS, lainotako faroak, aire egokitua, itxitura zentralizatua urrutiko kontrolarekin, atzera-ispilu elektrikoak, Beta irratia 4 bozgorailurekin eta "Wellington" 71x15 aleaziozko hagunak.

*PSP hau Penintsula eta Balearretan gomendatzen da (BEZ, garraioa, matrikulaziozko zergak eta gasolina-autoentzako Prever plana barne hartzen ditu)

Passat



T.M. Gernika Gernika Errepidea, 3 - Tel. 946 25 09 62 - 48300 Gernika